



GUGGENHEIM BILBAO

2024 PROGRAMAZIOA



GUGGENHEIM BILBAO



TITULUA: *Guggenheim Bilbao Museoaren Bildumako artelanak*

DATAK: Iraunkorra

ARETOAK: Hirugarren solairua

KOMISARIOA: Lekha Hileman Waitoller

BABESLEA:



Guggenheim Bilbao Museoaren Bildumaren erakusketa honek biltzen duen lan-sorta, Bigarren Mundu Gerraz geroztik artearen historian izandako une garrantzitsuenen erakusgarri da. Artearen eta arkitekturaren arteko lotura areagotzeko asmo handiko keinu batean, Bildumako piezarik adierazgarrienetako batzuk jasotzen dituen instalazio honek agerian jartzen du eraikinaren jatorrizko egitura, eta goratu egiten ditu Museoko hirugarren solairuko guneko zabal eta argitsuak.

Erakusketa artista jakinen artelan berezietan nahiz Bilduman ondo ilustratuta dauden artearen historiako mugimenduetan oinarritzen da. Hala, beren garaiko abangoardian aritu ziren eta beren esparruan ekarpen benetan erabakigarriak egin zituzten sortzaileak aurkezten ditu. Areta bakoitzak artista bakar baten edo partekatutako kezkak ikuspegi desberdinetatik aztergai dituzten hainbat artistaren ekoizpena behatzeko aukera eskaintzen du.

Solairu honetako areto batzueeta kokapen espezifikoak edo esperientzian oinarritutako piezak daude erakusgai, esaterako Sol LeWitt, El Anatsui eta Yayoi Kusamari eskainitako guneeetan. Azken horren obra, *Infinituaren isla-gela - Gizakientzako zorion-guraria, unibertsoaz harainditik igorria*, artista japoniarraren ibilbidean garrantzi handia duen eskultura garaikidea da, eta Bilbarako eskuratutako azkenetako bat da. Beste areto batzuetan, Bigarren Mundu Gerraren ondoren sortutako arte abstraktuaren garapenari buruzko muntaiak daude ikusgai, baita arte abstraktuaren eta espiritualaren arteko hurbilketak ere, zein 1960tik 1980ra bitartean garatutako arte-lengoiak, hala nola Pop artea eta herrikoitasunak sorkuntza garaikidean duen presentzia. Gainera, korrante artistiko horiei eta haietan ekarpena egin zuten egileei buruzko dokumentazio historikoa ere badago erakusgai.

Foto:

Yayoi Kusama

Infinituaren isla-gela - Gizakientzako zorion-guraria, unibertsoaz harainditik igorria (Infinity Mirrored Room - A Wish for Human Happiness Calling from Beyond the Universe), 2020

Ispilu-beira, zura, led argiztatze-sistema, metala eta taula akrilikoa

293,7 × 417 × 417 cm

Guggenheim Bilbao Museoa

©YAYOI KUSAMA, Bilbao, 2024

GUGGENHEIM BILBAO



TITULUA: *Giovanni Anselmo. Ostertzak gaindi*

DATAK: otsailak 9–maiatzak 19, 2024

ARETOAK: 205, 206, 207 eta 209

KOMISARIOA: Gloria Moure

Giovanni Anselmo (Ivrea, Italia, 1934), Arte Povera mugimenduko kidea bera, hirurogeiko hamarkadako belaunaldikoa da, bai adinez, bai konbikzioz. Hamarkada horrek corpus sendo eta homoginoa ekarri zuen kontzeptuari dagokionez; zalantzan jarri zuen aurrerapenaren ideia arrazionalista, eta sormenari lotutako hurbilketak beren osotasunean berreraikitzen eta berrikusten saiatu zen. Ezegonkortasuna, ausazkotasuna, indeterminazioa, interdependentzia eta konplexutasuna bezalako kontzeptuek behin betiko eragina izan zuten diziplina guztien oinarrietan. Gizakiak paisaia taxutzen duen behatzaile berezia izateari utzi zion; aitzitik, paisaiarengan eragina izatera pasa zen hura preziatzen, neurtzen eta ezagutzen ahaleginduta. Hori bereziki nabarmena da Anselmok sormena ulertzeko duen moduan; izan ere, haren lana, *povera* artista askoren lana bezala, naturara hurbiltzen da ahalmen fisikoak eta energetikoak berraurkitzeko.

Giovanni Anselmo. Ostertzak gaindi erakusketaren komisarioa Gloria Moure da, artistarekin berarekin lankidetzan estuan. Erakustaldiaren asmoa zera da, Anselmok sormenaz duen ikuspegia erakustea berrogeita hamarren bat obraren bitartez; tartean, argazkiak, proiektzioak, marrazkiak, eskulturak nahiz *in situ* egindako lanak. Erakusketak Giovanni Anselmoren corpus artistikoa osatzen duten kategoria eta motibo errepikariak ezagutzeko aukera emango dio publikoari, eta, aldi berean, agerian utziko du artistaren lanak garrantzia izugarria duela bai haren garaikideentzat eta bai gaur egun. Anselmoren obraren eta haien erakusketa-tokiaren artean hartu-eman indartsua sortzen dela kontuan hartuta, Museoaren arkitekturaren berezitasuna elkarrizketa aberasgarrien eszenatoki liluragarri bilakatuko da.

Argazkia:

Giovanni Anselmo

Titulurik gabea (Kotoi bustia beiraren kontra jaurti eta bertan geratzen da) [*Senza titolo (Il cotone bagnato viene buttato sul vetro e ci resta)*], 1968

Beira, kotoia, zinkeko ontzia, zakua, ura eta zerrautsa

210 x 210 x 50 cm

The Sonnabend Home Collection. Maileguan honi emana: Fundação de Serralves –Museu de Arte Contemporânea de Serralves, Oporto.

Depositua 1999

© Giovanni Anselmo

Argazkia © Filipe Braga

GUGGENHEIM BILBAO



TITULUA: *Ikurrak eta objektuak. Guggenheim Bildumako Pop artea*

DATAK: otsailak 16–irailak 15, 2024

ARETOAK: 201, 202, 203, 204 eta 208

KOMISARIOAK: Joan Young eta Lauren Hinkson

BABESLEA:



Bigarren Mundu Gerratik aurrera eta hirurogeiko hamarkadan ongi sartu arte, gorakada ekonomiko azkarra bizi izan zuten Estatu Batuetan eta, ondorioz, kontsumismoaren kultura handituz joan zen bertan. Inguruko merkantilismoari erantzuteko, artista batzuek masen kulturako irudiak sartu zituzten beren lanetan, eta metodo industrialak imitatzen (edo parodiatzen) zituzten teknika berriak erabili zituzten beren sorkuntzetan. Obra horiek Pop artea deritzonaren barruan kokatzen dira, eta aldizkari merkeak, publizitate-hesiak, iragarkiak, pelikulak, telebista eta komikiak erabiltzen dituzte iturri moduan. Roy Lichtenstein eta Andy Warhol bezalako artistek alde batera utzi zuten New Yorkeko Eskolaren estetika bereizgarri zuen keinuaren bat-batekotasuna, eta inpresio komertzialaren eta masa-ekoizpenaren logika inpersonala islatzen zuten lanak sortu zituzten.

Guggenheim Museoa Pop artearekin duen harremana azken horren hastapenetan hasi zen. Izan ere, Lawrence Alloway komisarioak —berrogeita hamarreko hamarkadaren amaiera aldera “pop” terminoa sortzen lagundu zuenak— 1963an antolatutako *Six Painters and the Object* erakusketak haren baliozkotze instituzionala ekarri zuen une kritiko batean. Hurrengo hamarkadetatik aurrera, Guggenheim Museoa egile aitzindariari eskainitako hainbat monografiko garrantzitsu antolatu zituen —tartean, Jim Dine, Roy Lichtenstein, Claes Oldenburg, Robert Rauschenberg edo James Rosenquist artistei eskainiak— eta, aldi berean, mugimendu horretako adibide ikonikoen bilduma bat osatzen joan zen.

Pieza historikoez gain, erakusketak obra berriak ere jasoko ditu, Pop artearen ondarea aztertzen duten artista garaikideek eginak. Artista horiek poparen formak eta lengoia erabiltzen dituzte gai ezberdinak kritikatzeko eta politizatzeke, adibidez, kontsumismoaren hiztegia. Erakusketak hau Kudeaketa Akordioaren berrespenak hala jasota Solomon R. Guggenheim Museumen funtsik esanguratsuenekin antolatzen denetako bat da. Hitzarmen horren baitan beste aurkezpen garrantzitsu batzuk ere antolatu izan dira orain arte, hala nola honako hauei eskainiak: Parisko Eskola, Thannhauser Bilduma, Vasily Kandinsky edo Jean Dubuffet.

Argazkia:

Roy Lichtenstein

Grrrrrrrrrr!!, 1965

Olio-pintura eta Magna mihise gainean, 172,7 x 142,5 cm

Solomon R. Guggenheim Museum, New York Artistaren dohaintza, 1997

© Roy Lichtenstein

© Solomon R. Guggenheim Foundation, New York. Eskubide guztiak erreserbatuta

GUGGENHEIM BILBAO



TITULUA: *June Crespo. Baskularra*
DATAK: martxoak 1–ekainak 9, 2024
ARETOA: 105
KOMISARIOA: Manuel Cirauqui

June Cresporen (Iruñea, 1982) eskultura-praktika hainbat bide eta ikerketa-ildo garaikideren bidegurutzean kokatzen da berak horrela nahita. Alde batetik, elkarrizketa eraldatzailea ezartzen du azken hamarkadetako euskal artea markatu duten kontzeptuekin; hots, “pare mugikorrak” eratzen ditu, esaterako, abstrakzioa eta keinua, tragikotasuna eta opakutasuna, arintasuna eta arrotasuna. Era berean, duela gutxi arte eztabaida handietatik kanpo zeuden gaiak hartzen ditu bere gain, bereziki sentsibiltate feministari eta bizimodu modernoak naturaren errealitatera ekarri duen suntsipenaren kontzientziari dagokienean. Era askotako materialak bildu eta nahastuz, Crespok azpimarratu egiten du bizitako materialen eta gure existentzia hesitzen eta bideratzen duten egiturazko elementuen artean dagoen kontraste handia. Egiturazko elementu horiei (hodiak, txapak, moldeak nahiz kofratuak) ehunezko piezak edo are paperak atxikitzen dizkie, tenkagailuen bidez lotuta edo, besterik gabe, elkarren gainean jarrita, elkarri galdezka.

Gaur egungo mundua konplexua izan arren eta informazioaren teknologiek hamaika erreferentziaren eraginpean jartzen bagaituzte ere, edo agian horregatik beragatik, Cresporen lana gorputzean oinarritzen da ia erabat: ukimenaren sentsualtasuna, pisua eta ehundura, prozesu metabolikoak eta istripuak. Guggenheim Bilbao Museoaren 105 aretoak berebiziko ezaugarri eta dimentsiodun testuingurua eskaintzen die elementu horiei guztiei, eta artistak gune horretarako berariak sortutako instalazioaren bidez esku hartuko du bertan.

Argazkia:

June Crespo

Beloak (uda) [Veils (summer)] 2022

Altzairu herdoilgaitza, brontzea, zeramikazko estaldura eta ehuna

243 x 106 x 70 cm

Alkar Contemporary Collection (ACC), Bilbo

© June Crespo, Bilbao, 2024

GUGGENHEIM BILBAO



TITULUA: *Martha Jungwirth*

DATAK: ekainak 7–irailak 22, 2024

ARETOAK: 205, 206, 207 eta 209

KOMISARIOA: Lekha Hileman Waitoller

Sei hamarkadatan zehar, Martha Jungwirth (Viena, 1940) artista austriarrak mundu fisikoarekin loturiko lengoia abstraktu propioa sortu du. Giza formaren, animalien eta paisaiaren behaketa zehatzak, artearen historiako erreferentziak eta artistak berak munduan zehar egindako bidaia ugariak tankeratu dituzte haren pinturak eta akuarelak. Jungwirthen obra boteretsuek estilo erabat inkonformista dute, eta ezohiko euskarrien gainean eginda daude, nola diren kartoia, hirien plano zaharrak, kontabilitate-liburuak edo biltzeko papera. Forma erratikoeak eta kolore biziek nolabaiteko espontaneotasun-ukitua ematen diete pinturei. Artistak sormen artistikoaren inguruan duen ikuspegi intuitiboa espresionismo abstraktuaren eta informalismoaren arteko zubi gisa deskribatu izan dute maiz.

Erakusketa honek Jungwirthekek hirurogeita hamarreko hamarkadatik gaur egunera arte egindako lana aztertzen du. Besteak beste, paper, mihise eta kartoi mehe gainean egindako hainbat akuarela eta olio-pintura biltzen ditu, baita lau artista-liburu ere. Margolan bat amaitu ondoren oraindik irukidatzeko geratu zaion ideiarekin bat duenean margotzen ditu Jungwirthekek liburuak. Erakusketa amaitzeko, egilea egun sortzen ari den pieza berriak izango ditugu ikusgai, eta, horrela, berrogeita hamar urteko ekoizpen bikaina jasoko da bertan. 1966an Joan Miró Saria eskuratu zuen, eta oraingo hau lehen aldia izango da orduz geroztik Jungwirthen obra espainiar estatuan ikusgai egongo dena.

Martha Jungwirth Vienako akzionismoaren eta Franz West artistaren arteko belaunaldiaren austriar ordezkari garrantzitsuentzat jotzen da. Etengabe arakatu ditu pinturaren materialtasuna, adierazpen-askatasuna, pertzepzioa eta keinua, eta horrek funtsezko ekarpenak egin dizkio abstrakzioaren eta, oro har, pintura garaikidearen historiari.

Argazkia:

Martha Jungwirth

Titulurik gabea (Maja III), 2022

Olio-pintura paper gainean mihise gainean muntatua

264,9 x 226,8 x 2,7

© Martha Jungwirth

GUGGENHEIM BILBAO



TITULUA: *Yoshitomo Nara*

DATAK: ekainak 28–azaroak 3, 2024

ARETOA: 105

KOMISARIOA: Lucia Agirre

EGOITZAK: Guggenheim Bilbao Museoa; Museum Frieder Burda, Baden-Baden; Hayward Gallery-Southbank Centre, Londres

BABESLEA: **Fundación
BBVA**

Yoshitomo Nara (Hirosaki, Aomori prefektura, 1959) bere belaunaldiko artista japoniarrik ezagunenetako bat da. Haren haur itxurako figuren erretratu bereizgarri, maitagarri, enigmatiko eta/edo mehatxagarriak ikono gurtu izatera iritsi dira, baita zenbait adierazpen sozialen ikur ere, artistaren lana hasiera-hasieratik nabarmendu izan duten aktibismoaren eta kezken erakusgarri. Yoshitomo Narak egikera tradizionalako artea sortzen du, bere haurtzaroen eta historia pertsonalean ez ezik, punk musikan, folkean eta rock undergroundean ere errotua, baita Europako eta Japoniako literaturan, naturan eta artearen historian ere. Erakusketa honetan haren ibilbide osoa ikus daiteke: alde batetik, Japonian 1980ko hamarkadan sortutako lehen lanak egongo dira ikusgai; lan horietan Nararen historia pertsonaleko elementu errepikariak agertzen dira, hala nola etxea eta lehen haur figurak, Takeshi Motai bezalako beste artista batzuen eraginpean eginak.

Bestetik, Narak Alemanian egin zuen egonaldi oparoa jasotzen du erakusketak; egonaldi hartan, artistak hizkuntzaren mugak ezarritako isolamenduari aurre egin zion A.R. Penck-en laguntzarekin Kunstakademie Düsseldorf en espresionismo alemana ikasten eta deskubritzen zuen bitartean. Garai hartan hasi zen laster bere lengoia bereizgarriaren parte bezala ezagun egin ziren pertsonaia nagusiak bere ekoizpenean sartzen. 2000. urtean Japoniara itzultzean egin zuen lana eta harrezkero sortu dituen pinturen, marrazkien, instalazioen eta eskulturen sorta garrantzitsua jarriko da erakusgai haren ibilbide osoaren testuinguruan.

Argazkia:

Yoshitomo Nara

Putzurik sakonenean (In the Deepest Puddle II), 1995

Akrilikoa kotoi gainean mihise gainean muntatua

120 x 110 cm

Takahashi Collection

© Yoshitomo Nara. Eskaintza: Yoshitomo Nara Foundation

GUGGENHEIM BILBAO



TITULUA: *Hilma af Klint*

DATAK: urriak 18, 2024–otsailak 2, 2025

ARETOAK: bigarren solairua

KOMISARIOAK: Tracey R. Bashkoff eta Lucia Agirre

BABESLEA:



Hilma af Klint (1862–1944) artista suediarra pintura erabat abstraktuak sortzen hasi zen 1906. urtean. Margolan haiek ez zuten aurretik ikusitako ezeren antzik, ausartak, koloretsuak eta mundu fisikoan ezagutu daitezkeen erreferentziek ezarritako loturarik gabeak baitziren. Hainbat urte igaro ziren beste batzuek ere antzeko urratsak eman arte beren artelanak irudikapenari lotutako edukitik askatzeko. Af Klintek oso gutxitan erakutsi zituen bere pinturak jendaurrean, eta, mundua prest ez zegoela sinetsita, bera hiltzen zenetik 20 urtera bitarte ez erakusteko agindua eman zuen.

Haren obra ia ikusezina izan zen 1986ra arte, eta azken hamarkadetan jaso dute merezitako arreta haren pinturak eta paperezko obrek. *Hilma af Klint* erakusketak sortzaile handi horren lorpen artistikoak sakon esperimentatzeko aukera eskainiko du Guggenheim Bilbao Museoa. Erakustaldia artistak aurrerabiderik handiena izan zuen urteetan zentratuko da (1906–20), irudimen handiko pintura ez-objektiboak ekoizten hasi zen garaian, alegia. Artistak sortutako corpus bereziak modernitatea eta haren garapena berriz ebaluatzeko gonbidapena luzatzen du.

Argazkia:

Hilma af Klint

VI taldea, Eboluzioa, 16. zk., WUS/zazpi puntako izarra saila (Grupp VI, Evolutionen, nr 16, Serie WUS/Sjustjärnan), 1908

Olio-pintura mihise gainean

102 x 133 cm

The Hilma af Klint Foundation, Stockholm HaK 84

© Hilma af Klint, VEGAP, Bilbao, 2023

GUGGENHEIM BILBAO



TITULUA: *Paul Pfeiffer. Askatasunaren sorrerari buruzko kontakizunaren hitzaurrea*

DATAK: azaroak 22, 2024–martxoak 23, 2025

ARETOAK: 103 eta 105

KOMISARIOA: Clara Kim

EGOITZAK: MOCA, Los Angeles; Guggenheim Bilbao Museoa

Paul Pfeiffer. Askatasunaren sorrerari buruzko kondairaren hitzaurrea erakusketak Paul Pfeifferrek (1966, Honolulu, Hawaii; New Yorken bizi da) diziplina anitzetan jardunez egindako 25 urteko sormen-ibilbidea aztertzen du. Artista aitzindaria da Pfeiffer, ikuskizunaren, pertenezaren eta ezberdintasunaren nozioak zalantzan jartzen dituen bere lan zorrotzagatik ezaguna. Telebistan emandako kirol-ekitaldi eta entretenimendu-ikuskizunak abiapuntu hartuta, Pfeifferren lanak ospearen kulturarekiko dugun obsesioa eta lilura deserakitzen ditu eta, metraje aurkitua maisuki editatuta, agerian uzten du nola moldatzen eta manipulatu den kontzientzia kolektiboa. Izan ere, irudien zirkulazioaren ibilbide globalaren arrastoari jarraituta, agerian jartzen digu nola maneiatzen diren desioa, heroismoa eta gorespena artearen, erlijioaren, politikaren eta nazionalitatearen mekanismoen barruan.

Aro bat finkatu zuten bere lehen bideoetatik hasi eta argazkigintzan, instalazioan eta eskulturan generoak apurtzen dituzten bere lan berrietaraino, gaur egun eraginik handiena duten artisten artean kokatzen du Pfeiffer erakusketak. Bertan ikusgai daude sortzaileak LCD monitoreetan eta miniproiektoreetan aurkezten dituen lan enblematikoak —*Gurutziltzaketaren atalak (Francis Baconen arabera)* [*Fragments of a Crucifixion (After Francis Bacon)*, 1999], *Joan 3:16 (John 3:16)*, 2000) eta *Kontaketa luzea (The Long Count)*, 2000–01) trilogia, besteak beste— bai eta eskala handiko proiektzioak eta instalazio murgiltzaileak, nola diren *Santuak (The Saints)*, 2007), 1966ko Munduko Kopan Ingalaterraren eta Mendebaldeko Alemaniaren artean jokatutako finalaren ikus-entzunezko birsorkuntza, eta *Gorria berdea urdina (Red Green Blue)*, 2022), artistaren bideo-lanik berriena. Pfeiffer egun jorratzen ari den *Incarnator* sailerako enkarguz egindako eskultura berriak ere lehen aldiz jarri ditu jendaurrean, Filipinetan, Espainian eta Mexikon lan egiten duten eskulturagileekin —“encarnadores” (haragiztazaileak) deituak— lankidetzan eginak. Sail horretan, Pfeifferrek Justin Bieber pop izarra Jesukristoren tankerara aurkezten du, ikono erlijioso bihurtua. Hala, eskultura horien ekoizpenak lotura egiten du XVI. mendeko merkataritza-ibilbide kolonialen eta egungo sare globalen artean.

Erakusketa hau Pfeifferri Estatu Batuetan eskainitako lehen atzera begirakoa izan da, eta Guggenheim Bilbao Museoko erakustaldia artistak Europan izan duen handiena izango da.

Argazkia:

Paul Pfeiffer

Apokalipsiaren lau zaldunak (07) [*Four Horsemen of the Apocalypse (07)*], 2002

DuraFlex inprimaketa digitala, 121.9 x 152.4 cm

© Paul Pfeiffer, Bilbao, 2024.

Artistaren eskaintza; Paula Cooper Gallery, New York; carlier | gebauer, Berlin/Madril; Perrotin; eta Thomas Dane Gallery, Londres

GUGGENHEIM BILBAO



FILM&VIDEO

TITULUA: *Metahaven: Kaosaren teoria*

DATAK: otsailak 22-ekainak 9, 2024

ARETOA: 103

KOMISARIOA: Manuel Cirauqui

Metahaven izenez ezagutzen da Vinca Kruk eta Daniel van der Velden artista nederlandarrek osatzen duten bikote ospetsua. 2007an sortu zuten kolektiboa, eta haren lanek erraz gainditzen dituzte artearen eta diseinuaren mugak. Filmak, eszenografia eta objektu grafikoak, tresna digitalak eta diskurtso teorikoa bezalako baliabideak erabiltzen ditu Metahavenek, eta forma-sortzaile eraginkortzat jotzen da gaur egun; forma horietan hezurmamitzen da, hain zuzen ere, post-humanismoa deritzona. Kolektiboaren praktika transdiziplinarrak nazioarteko errekonozimendua jaso izan du, eta bakarkako erakusketak eskaini dizkiote MoMA PS1, Stedelijk Museum, ICA London edo Minneapoliseko Walker Art Center bezalako erakundeek. Azken ekoizpen zinematografikoen artean, *Kaosaren teoria* (*Chaos Theory*, 2021) ikus-entzunezko poema hunkigarria dago, bi ahizpa gazteren arteko elkarriketan eta haien bilakaeretan oinarritua: X (Valentina Di Mondo) eta Y/Z (Georgina David/Lucie de Brécharde). Adinak mundu garaikideari eta haren fenomeno ulertezinei aurre egitera daramatzen heinean, protagonistek gure bizimodua eta bizikidetzaren definitzen dituzten afektuak azaltzen dituzte. Gure ziurtasunak sendotzera bideratutako hizkuntza narratibo konbentzionala saihestuz, *Kaosaren teoriak* samurtasuna eta ezintasuna erabiltzen ditu zapaltzen dugun lurra bera ere zalantzan jartzera bultzatzeko.

Zalantzan jartze horren ondorioa ez da nahasmendua edo gatazka eragitea, baizik eta empatia areagotzea: "Zer da oraina / zer da fisikoa / poza bera bezala?". Filmeko protagonistetako batek, Clarice Lispector idazlea parafraseatuz, gauzetan barrena egindako bidaia bat aipatzen du, eta obra hau definitzeko balio dezake, hain zuzen ere, aipu horrek. Egituraren, konposizio kromatikoaren eta soinu-muntaiaren bidez, Metahavenen piezak irudien eta pertzepzioaren ekologia moduko batean sartzen gaitu Gediminas Zygas kompositore lituaniararen partitura magistralaren laguntzarekin.

Argazkia;

Metahaven

Kaosaren teoria (*Chaos Theory*), 2021

Kanal bakarreko filma, 25 min (fotograma).

© Metahaven. Artistaren eskaintza

GUGGENHEIM BILBAO



FILM&VIDEO

TITULUA: *Anthony McCall: Segundo-frakzioa*

DATAK: ekainak 20–azaroak 10, 2024

ARETOA: 103

KOMISARIOA: Manuel Cirauqui

Mugimendudun irudiari lotutako praktika artistikoei eskainitako erakusketa-programazioaren hamargarren urteurrenarekin bat eginez, Anthony McCallen (Orpington, Erresuma Batua, 1946) obra filmiko eta erabat abstraktua izango dugu Film & Video aretoan. Modu bereizgarrian eta beti ere enigmatikoan, proiektio zinematografikoa eta fenomeno eskultorikoa bateratzen ditu New Yorken bizi den artista britainiarraren lanak; baina espazio-marrazkiaren edo argi-artearen ikuspegitik ere beha daiteke lan hori. Hirurogeita hamarreko hamarkadatik gaur arte, McCallek “argi solidoaren” kontzeptuaren inguruan egin du lan: argi-planoen proiektio kontrolatuak erakusketa-gune batean eragiten duen bolumen-efektua adierazten du nozio horrek.

Modu horretan, artistak hipnotikoki eta modu ukiezinean mugitzen diren formak sortzen ditu aretoko ilunantzean. Bilduman dauden Richard Serraren eta Lucio Fontanaren obrekin elkarrizketa argia eginez, erakusketa honetan bildutako pieza-multzo berri-berria Museoko erakusketa-gunerako berriaz pentsatuta dago. Artelanekin batera, artistaren artxiboko elementu argitaragabeak ere egongo dira ikusgai, McCallek azken hamarkadetan egindako ikerketa testuinguruan kokatzen laguntzeko.

Argazkia:

Anthony McCall

Aurpegiz aurpeg (Face to Face), 2018

Erakusketaren ikuspegia, Hepworth Wakefield, Erresuma Batua, 2018

© Anthony McCall

Argazkia: Darren O'Brien/Guzelian Pictures. Artistaren eskaintza